

# ek!

eta kitto!  
euskara elkartea

2023ko abenduak 29 · 1295 zenbakia

## 2023 URTEARI AGUR



## Recalde

Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

Fokatu hemen  
zure mugikorrarekin  
eta iritsi  
gure webgunera



•Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

Plaza Barria, 2, 29  
Telf.: 943 201 844 - EIBAR  
[www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)

# ESTREINA EZAZU IRRIBARREA!

PROMOZIO BERRIA TITANIOZKO INPLANTEETAN  
URTARRILAREN 31-RA ARTE



ELGOIBAR · LASARTE-ORIA · TOLOSA

943 36 63 77

RPS 181/19

## Eibarko PROFESIO LIBERALAK



### ABOKATUAK

#### CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

[www.cristinabaz.com](http://www.cristinabaz.com)

[cristinabaz@icagi.net](mailto:cristinabaz@icagi.net)

### EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2

Tel. 943 20 41 94

Fax. 943 82 00 06

[egurenyasociados@gmail.com](mailto:egurenyasociados@gmail.com)

### AHOLKULARITZAK

#### GAURVE

Fermin Calbeton 13-15

Tel. 943 20 24 61

[www.gaurve.es](http://www.gaurve.es)

[consultores@gaurve.es](mailto:consultores@gaurve.es)

#### GESTILAN

Zezenbide 4

Tel. 943 20 70 02

[www.gestilan.es](http://www.gestilan.es)

[gestilan@gestilan.es](mailto:gestilan@gestilan.es)

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

[www.cristinabaz.com](http://www.cristinabaz.com)

[cristinabaz@icagi.net](mailto:cristinabaz@icagi.net)

Hemen zure lekua  
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Badoa 2023. urtea, baina hilabete hauek laga dizkiguten irudiak gure YouTube-ko kanalean geratu dira. Erabili orri honetan agertzen den QR kodea eta, urte osoan egindako bideoez gain, urteari egin diogun erreposaoa ikusi dezakezue.



#### ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Ramon Beitia

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Eskutitzak



## Urte Berriari Ongi Etorria egiteko gonbita

Urtero egin ohi dugun bezala, eibartar guztioi urte berriari ongi etorria Urko gainetik emateko deialdia egiten di-zuegu. Horretarako, mendi irteera berezia antolatu dugu urtero bezala, eta honakoak dira irteeraren xehetasunak:

- Irteera eta talde argazkia, 09:00etan Klub Deportiboaren egoitzan

- Ibilbidea: Depor / Itzioko parkea / Arrajola / Aritxulueta / Elorretagana / Amezteburu / Urko

- Talde argazkia: 10:30ean

Horrez gain, egun guztian zehar, eta beste hainbat ibilbide erabiliz ere, inguratuko da jendea, esaterako:

- Amaña / Lindari / Elorreta / Urko

- Milaflores / Iturburu / Amazabalegi / "Kate-bidea" / Urko

- Ixua / Urko

Aurten, gainera, bada berritasunik ere: 2024an 100 urte beteko ditugunez, gutxienez 100 lagun elkartzea nahiko genuke mendi puntan. Animo ba!

**Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordea**

## Hurrengo alea urtarrilaren 12an

Ohiko bidetik, gure Gabonetako "oporrak" urtarrilaren lehenengo astean hartuko ditugu. Dena dela, alerik ez badugu kaleratuko ere, gure web orria berdin berdin jarraituko dugu elikatzen.

**Erredakzioa**

# Hortik esanak



Etorkizunean gure espezetik, homo sapiensetik, sortutako lau espezie izango dira. Genetikoki eta teknikoki aldatzea baztertu duena izango da bat, hau da, gurea. Bestetik, aldaketa horiek onartuko dituen, patologiek horretara behartuta, esaterako. Izango dira baita laboratorioetan editatuak ere. Eta, azkenik, robotak. Dibertsitate kontua da. Eta garrantzitsua, aldi berean, gurea baino kontzientzia gehiago izango dira.

**EUDALD CARBONELL, Atapuerca Fundazioa**

Afganiarrek ikaragarritzko umore-sena daukate; gainera, abegitsuak dira, eskuzabalak, zerbitzariak. .. Begira, nire kamara gainean dudala edozein etxera deitu eta galdetzen badiet ikusi dezakedan zelan bizi diren eta argazkiak atera, aurrera esango didate. Ez hori bakarrik, tea eta janaria eskainiko didate, arratsalde guztia bertan pasatzeko gonbidatzeaz aparte. Ez naute ezagutzen, baina berdin zaie, hartuko naute. Nire auzoko edozein etxera joanda, seguru poliziari deituko ziotela... Txarrago oraindik, deskuidatzen banaiz, tiroa emango lidakete.

**STEVE McCURRY, argazkilaria**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**OSPELAK ORTOZIK** → Baitta zera be! Gaztelera zko 'isi hombre, que te crees tú eso!  
**OSTARKU** → Ortzadarra. "Ostarkuak urten dau eta ez dau gehixago euririk egingo".

### Hildakoak

- **Jose Manuel Martínez Rodríguez.** 76 urte. 2023-12-20.
- **Manuela Herrera Calvente.** 101 urte. 2023-12-20.
- **Guadalupe Sanchez Garcia.** 87 urte. 2023-12-20.
- **Jose Ignacio Aranzibia Areitio.** 78 urte. 2023-12-21.
- **Juana Pache Diez.** 96 urte. 2023-12-23.
- **Mari Carmen Sarasketa Artetxe.** 71 urte. 2023-12-24.
- **Tomas Perez de Prada.** 68 urte. 2023-12-24.
- **Adolfo Gutierrez Estebanez.** 91 urte. 2023-12-25.
- **Isabel Esnaola Escudero.** 66 urte. 2023-12-25.

### Jaiotakoak

- **Aiert Muñoz Sanchez.** 2023-11-28.
- **Ibai Olarte Aranbarri.** 2023-12-14.
- **Amir Akhrif.** 2023-12-15.
- **Eneko Colea Vladulescu.** 2023-12-16.

# 1960

## Mendizale taldea Urkon

Urte horretako lehen egunean, urtarrilaren Iean Juan San Martinek egindako argazkian, mendizale talde ederra ageri da. Bizkarrez beste norbait dago, taldeari argazkia egiten, eta albo batean, berriz, Indalecio Ojanguren argazkilaria.

**JUAN SAN MARTIN BILDUMA.**  
GUREGIPUZKOA



## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 29</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>ZAPATUA 30</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberría, 7)
<b>DOMEKA 31</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberría, 7)
<b>ASTELEHENA 1</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberría, 7)
<b>MARTITZENA 2</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarría, 4)
<b>EGUAZTENA 3</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>EGUENA 4</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>BARIXAKUA 5</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 5)

<b>ZAPATUA 6</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>DOMEKA 7</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberría, 7)
<b>ASTELEHENA 8</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>MARTITZENA 9</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarría, 4)
<b>EGUAZTENA 10</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 5)
<b>EGUENA 11</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>BARIXAKUA 12</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberría, 7)

**GAUEZ BETI**, 2024an,  
Lekunberri (Isasi, 31)

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20



## Gabonetako kontzertu arrakastatsua eman zuten Usartza taldeko txistulariek

Gabonetako kontzertua eman zuten abenduaren 24an Usartza Txistulari Taldeak, Untzagan. Emanaldia berezia izan zen, eta txistulariek batera beste hainbatek hartu zuten parte: metal boskoteak, saxofoi laukoteak, pianoak, perkusioak,

eta Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako Sostoa Abesbatzak, biolontxelo ikasleek eta txistu ikasleek. Eguzkia lagun zutela, herrialde ezberdinetako Gabon kanta ezagunak jo zituzten plazan bildu zen publikoaren aurrean.



## Giro ederrean ospatu zuten Gabontraila

Urteroko ohiturari jarraituz, Eibarko mendi korrikalariak Kalamuan, *Parlamentuan*, agurtu zuten denboraldia, turroia janda eta txanpainarekin topa eginez. Aurtengoa 9. ekitaldia izan da eta, eguraldia lagun, talde polita elkartu zen.

## Javier Larrabeitik jaso du Urbat waterpolo taldearen sanandresetako otarra

Urbat I.K.E waterpolo taldeak San Andres egunean zozketatu zuen otarra Javier Larrabeitirentzat izan da. Martitzenean entregatu zioten saria irabazleari, argazkian ikusi daitekeen bezala. Saria banatzea egun batzuk atzeratu da, lehen zenbaki sarituaren (3740) jabea ez delako azaldu. Agindutako epea amaituta, erreserbako lehen zenbakiari (4918) egokitu zaio saria jasotzea. Zorionak!



## 8.008 zenbakiak irabazi du mila euroko saria Urki futbol taldearen rifan

Urki futbol taldeak saldutako rifen zozketan, honako zenbaki hauek izan dira sarituak: lehen saria 8.008 zenbakiarentzat izan da (1.000 euro), bigarrena 8.303 zenbakiarentzat (500 euro), eta hirugarrena 1.938 zenbakiarentzat (250 euro).



## Eibarko haurrek harrera bero-beroa egin zieten Olentzero eta Mari Domingiri

Eibarko haurrek pozarren hartu zituzten Olentzero eta Mari Domingi domeka goizean Urkizura ailegatu zirenean. Handik abiatuta, Gabon kantuen artean, denak elkarrekin kalejiran joan ziren, Untzagaraino. Bertan, Usartza

Txistulari Taldearen kontzertua zegoela aprobetxatuta, Olentzerok eta Mari Domingik plazan zegoen jende guztia agurtu eta beraiekin batera kantatu zuten. Kalejirako argazkiak [www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus) web-gunean ikus daitezke.



## Ikuskizun ederra egin zuen Eibarko Koro Gazteak bere diskoa ezagutzera emateko

*Neguko Ahotsak* izeneko diskoa eta bideoklipa kaleratu berri, Eibarko Koro Gazteak ikuskizun berezia eskaini zuen zapatuan, Coliseo antzokian, lan berria zuzenean ezagutzera emateko. Gabon kantak

ardatz hartuta, taldea osatzen duten hamazazpi neska-mutilek urtebete eman dute lanean, lehen diskoa kaleratzeko. 10 eurotan eros daiteke, Portalean, Coliseon, Marsi loradendan eta Helmet House-n.



## Lur-azpiko Eibar erakusten duen lanaren proiektzioa egingo dute bihar Kultur

Bihar, 18:00etan, Javier Martín Lapeyra ilustratzaileak osatutako proiektzioa eskainiko dute Arrate Kultur Elkartearen lokaletan. *Eibar subterráneo. Nuestro patrimonio sumergido* izenburuko lan hone-tan, egileak iaz eta aurten Eibarko lur-azpira egindako hiru bidaietako irudiak bildu ditu.



## Hiru Errege Magoen kabalgata urtarrilaren 5ean egingo da

Urtero bezala, urtarrilaren 5ean izango da Erregeen kabalgata. Arratsaldean Nele Dantza Eskolak, Eibarko Balletak, Kaxak, Koak eta Ipurua Gimnasia Erritmiko taldeek erakustaldia egingo dute, Ipurua kiroldegian. Hori amaituta, Untzaga-tik irtengo da kabalgata, 19:00etan, Eibarko Cielito Musika Bandarekin batera herria zeharkatu eta, berriz ere, Untzagan amaitzeko. Jarraian, udaletxeko patioan umeei harrera egingo diete.



## Auzokide askoren interesa piztu zuen Azitain biziberritzeko egitasmoak

Santo Tomas eguna aukeratu zuten Azitaingo bizilagunek, iraganeko jaiak gogora ekarri eta hainbat auzokide omentzeko. Arratsaldean, gasolindegi parean dagoen Gure Kaiola tabernan hasi zituzten ospakizunak, handik kalejiran abiatu eta elizan jarraitzeko.

Guztira 150 bat auzokide elkartu ziren bertan. Musika emanaldiekin batera, diplomak banatu zituzten eta 1978. urteko jaien irudiak erakutsi zituzten, besteak beste. Agurtu aurretik, Azitaingo Lanbide Heziketako Eskolara bisita egin zuten.



## Herritarrek Gazako sarraskiarekin amaitzea eskatu zuten beste behin

Palestinari babesa adierazteko kontzentrazioa egin zen barixakuan, Untzagan, Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez taldekoek antolatuta. Elkarretaratzean batutakoek palestinarren kontrako eraso eta hilketak geratzea eta bakea eskatu zituzten.



## Ulsaga jauregiko arkabuzaria Eibarko Museoaan ikusgai ipini dute

Udalak urte hasieran egindako zaharberritze-lanak amaituta, Untzagako edo Ulsaga jauregiko Orbearren dorretxea izan zeneren fatxada nagusiko balkoia apaintzen zuen arkabuzariaren gorputz-enborra museoko erakusketa iraunkorrean dago behin betiko kokatuta. Horrela, piezak leku nabarmena izango du ibilbide historikoaren bigarren aretoan. Gainera, interpretazio-panel baten bidez, jauregiaren antzinako kokapena eta dekorazio-xehetasunak ezagutu ahal izango dira, Amaia Torresek egindako marrazkiei esker.



## DJ Klandestinak saioa egingo du bihar Untzagan

Eibarko Udalak antolatuta, bihar gauean, 23:30etik aurrera, DJ Klandestinak musika saioa eskainiko du Untzaga plazan.





URTIA ONDO AMAITYU TA BERRIYA GANORAZ HASTIAK



EZ DAKA SEKRETU HAUNDIRIK, BANĀ...



AMAITYUTAKUAN SUKALDIA TXUKUN LAGA BIHAR DA!

uix

Idurre Iriondo



**PELLO OSORO**

*Triatloilaria*

**“Entrenatu eta txapelketetan  
entrenatutakoa erakutsi  
besterik ez dugu egiten”**

# urtarrila

# 1



**MIREN NARBAIZA**

*Musikaria*

**“Lautada’ diskoak duen giro  
anitza ekartzen saiatzen gara  
zuzenekoetan”**

Urte berria bai, baina gauza batzuk ez dira aldatzen. Horrela, pentsiodunek 5 urteko borroka ospatu dute aurten. Astelehenero 120 bat lagun batzen dira Eibarren, Untzagan egin ohi diren kontzentrazioetan.

Urte berezia izan da San Andres elizarentzat. Izan ere, urtarrilean erretaularen obrak amaitu zituzten, eta gero... irakurriko duzue hilabete batzuk geroago zer gertatu zen.

Urtarrilaren erdialdean elurra egin zuen. Kaleak ez ziren gehiegi zuritu, baina mendi inguruan zen antzeman zen ekaitzaren ondorioa.

Eibar Kirolaren Europar Hiria 2023 Munduko

Jugger Txapelketa Eibarren jokatu zela jakinaz zuten. Arima galduak antolatu zuen txapelketa eta taldeko arduradunek atea ireki zizkien kirola probatu nahi zutenei, baita juggerrean nola egin daitekeen azaldu ere.

Ipuruako anexoko zelaiari erabilera publikoa eman zioten asteburuetan eta horrela egon da urte osoan zehar.

Ustekabe txarangakoak Donostiako danborradan egon ziren eta, beste alde batetik, danborradaren doinuak Coliseo antzokian entzun ahal izan genituen Usartza txistulari taldearen eskutik.



Esteban Oroz margolariak pintura tailer arrakastatsua eskaini zuen Portalean.



San Andres elizako erretaularen berritze-lanak amaitu zituzten urtarrilean.

Astebeteko tartean **1.319** hondakin edukiontzi okerrean zeudela atzeman zuten. Larrialdietarako **691** gizarte-laguntza (621.851 euro) eman zituen iaz Udalak.




**HEGOI ESTEBAN**

*Errugbilaria*

**“Kirola egiteko ohitura hartzea eta balio batzuk barneratzea besterik ez dugu nahi izaten”**



Elurra egin zuen urtarrilaren 18an eta irudi ederrak laga zizkigun herrian eta inguruko mendietan.



**MAIDER CENITAGOYA**

*Filosofoa*

**“Norbaitekin enpatia izateko ez dago ahalegin handirik egin beharrik”**




Manuel Zabalak herriko eraikinen inguruko maketa-erakusketa jarri zuen Armagintzaren Museoan.

	<p>Baimendutako harategia Euskal Okela Carniceria autorizada</p>	<p>Bidebarrieta, 20 Especialistak plater prestatu eta haragi bikainetar <b>ETXERA ERAMATEN DIZUGU</b> 943 20 16 69 f @Oberenaharategia</p>	
--	--	--	--

# otsaila

# 2



## LOREA URKIA

Miss Grand Euskadi

**“Modaren arloan jarraitu nahiko nuke, baina irakaslea naiz eta hori da gehien gustatzen zaidana”**



## ERNESTO BARRUTIA

Antzerki zuzendaria

**“Negarrik egin nahi ez dugunez, irribarreen gainetik barre egingo dugu”**

Urtero moduan, hilaren hasieran San Blas eguna ospatu zen eta errejeta bidez grabatzeko aprobetxatu genuen (gure YouTubeko kanalean duzue).

San Blasak ospatzen diren moduan, Santa Ageda ere ospatu genuen, jakina.

Aratosteen txanda ere iritsi zen otsailean, azken urteetan bizitako debekuak eta murriztapenak atzean lagata.



San Blas opilak bedekatu zituzten otsailaren 2an.

Zaldibarko hondamendia gertatu zela 3 urte bete ziren, eta oraindik argi bila jarraitzen dute. Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran gogoratzeko ekitaldia egin zuten Eitzagan.

Javier Gorosabel I. Topaketa egin zen, 2015ean hil zen astrofisikari eibartarraren omenez. Gamma izpien eztanda kosmikoen fisikan Gorosabelek egindako ekarpenak funtsezkotzat hartzen dituzte mundu osoko astronomoek gaur egun ere.

Hilaren 14an hasi ziren 46. Antzerki Jardunaldiak eta Maria Adanez eta Pepon Nieto aktoreak izan ziren aurtengo aurkezpeneko protagonistak.

Ubitxa eta San Kristobal lotzen dituen lehen igogailua martxan jarri zuten.

Grabatu eta damaskinatu tailerra jarri zuten martxan Armeria Eskolan, herrian tradizio handia izan duten ogibide eta jarduerak berreskuratu nahian.

Herrian tradizioak eta modernitateak tokia partekatzen dutenez, otsailean UniEncounter egin zen, teknologia berrien eta informatikaren inguruko topaketa. Ekintza ugari egin ziren hilaren 17ko asteburuan.

TEK Azitain sortu zuten, Gipuzkoako industria-enpresen lehen energia-komunitatea. Zortzi enpresatan 347 plaka fotovoltaiko instalatzeko asmoa aurkeztu zuten, urtean 972 tona CO2 isurtzea saihestu asmoz.

Ingurugiroko gaiekin jarraituz, Eibarko Baso Biziak elkarteak, bertoko 130 zuhaitz inguru landatu zituen Lindarin.

Azken berritze-kanpaina amaituta, **6.034** abonatu lortu zituen Eibar KE-k. Urtarrilaren 1ean **27.264** biztanle zituen Eibarrek.



**MANEX BERISTAIN**

*Barreterapeuta*

**“Alaitasuna eta samurtasuna oinarrizkoak dira norberaren ongizaterako”**



**MIREN AGUR MEABE**

*Idazlea*

**“Emakumeok kontatutako lanak literatura sistemaren erdigunera iritsi dira azken urteotan”**



Zaldibarko zabortegia amildu zenetik bi urte bete ziren eta Sololuze eta Beltran gogoratu zituzten Eitzagan.




Ubitxa eta San Kristobal kaleak lotzen dituen igogailua inauguratu zuten.

Grabatu eta damaskinatu tailerra eskaini zuten Armeria Eskolan.

# martxo

# 3



## AMAT VALLMAJOR

Zinegilea

**“Argi nuen filmatzen nuen lehen pelikulak Eibarko osaben inguruko zerbait kontatu behar zuela”**



## IDOIA ITURBE

Coben group

**“Startupen kultura hedatu nahi dugu eta formakuntza berebizikoa da horretarako”**

Mendi Jardunaldiak egin ziren martxoan zehar eta, Alex Txikonek hitzaldia eskaini ondoren, negutraila eta Islandia izan ziren protagonista.

Kirolaren beste arlo batean, txirringarritan, zenbait proba laga zituzten bertan behera Gipuzkoan, tartean Eibarko Udaberri Saria, moto-loturen afera dela eta.

Futbolean, bestalde, Bar Txokok futbol-zaletuen liga txapelketa berri bat bereganatu zuen.



Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, manifestazioa egin zen herrian.

EHUko Arte ederretako irakasleek, ikasleek, ikerlariek eta langileek osatzen duten Artekom ekimenak ‘Bizia zaintzen. Basoa – biodibertsitatea – bizitza’ izeneko egitasmoa eskaini zuen herrian, basoari buruz hausnartzea helburu.

Martxoaren 8an, gela propioetatik salto egiteko gonbidapena egin zen, emakumeak ahalduntzea bilatuz, hilabete osoa iraun zuen egitarauarekin.

Mobilizazio gehiago egin ziren hilabetean zehar. Horrela, hilabete amaieran, osasun publikoaren aldeko mobilizazio jendetsua egin zen, eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta berriarekin haserre agertu ziren Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendukoak.

Udal hauteskundearen urtea izan den honetan, martxoan Carmen Larrañaga zinegotzi-ohia hil zen.

Bestalde, politikarekin jarraituz, Eibarko Sozialistek 125. eta Ernaik 10. urteurrenak ospatu zituzten, hurrenez hurren.

Hilaren 15ean Euskararen Transmisioa eta Soziazio Mintegia antolatu zuen ...eta kitto! Euskara Elkartek, eta euskararen biziberritzearen erronkak eta praktikak izan zituen hizpide.

Lierni Fernandez eta Iñaki Serrano Egoaizia Gobernu Kanpoko Erakundeko kideak Etiopia iparraldeko Tigray eskualdean egon dira, krisi humanitario larria eragin duen bi urteko gerra zibilaren ondoren bertako egoera gertutik ezagutzeko eta Egoaiziak abian jarri dituen lankidetzaproiektuen jarraipena egiteko.

Errefuxiatuei jaten emateko **12.000** kilo janari bildu ditu Zaporeak erronkak. **47,2** milioi euroko aurrekontua onartu zuen Udalbatzak.



**MARINA PEROSANZ**

*Zinegilea*

**“Muskil-en istorioa baserri batean kokatu genuen, baserrietan areagotu egiten delako genero indarkeriaren isiltasuna”**



**OSCAR ALVAREZ**

*Historialaria*

**“Ez pentsa esklabutza urruneko gauza denik, Eibarko kaleetan ere esklabuak ibili ziren”**



Akademia eta umorea uztartu ahal direla erakutsiz, Barredromoa egin zuten UEU.



Egoaziako kideak Etiopiako Tigray eskualdean egon ziren lankidetzaproiektuen jarraipena egiteko.

Urkizuko iturri pareko botijeroari erori zitzaion besoa konpondu zioten.



## HONOKA YONEI

*Futbolaria*

**“Eibartarrak oso atseginak zarete eta Eibar KE oso talde familiarra da”**

# apirila 4



## MARKOS UNTZETA

*Musikaria*

**“Kantuekin energia berezia sortzen da, taldekideekin orduak partekatuz lortzen dena”**

II. Errepublika gogoratzeko ekintzak egin ziren eta, urtero lez, errepublikazaleek martxa egin zuten Ermutik Eibarreraino.

Andretxea berria inauguratu zuten Isasi kalean, Astelena frontoiaren aldamenean. Inaugurazioan esan zuten moduan, “emakumeak ahalduntzeko,



Sautsin skate-parke berria inauguratu zuten.

jarduerak garatzeko eta ezagutza berriak eskuratu ahal izateko erreferente garrantzitsua bilakatzeko” zabaldu zituzten atea.

Euskal Herriko Itzulia jokatu zen eta, beste behin, Eibarko etapa izan zen erabakigarria. Bertan, Frantziako Tourreko azken bi edizioetan garaile izan den Jonas Vingegaard izan zen jaun eta jabe. Hurrengo egunean Itzulia Basque Challenge jokatu zen, txinrindularitza zaleen proba, eta 200 laguneko tropela osatu zuten. Valenciaga Memorialean, bestalde, David Dominguez izan zen irabazle.

Eibarko kirolariek ere hainbat erronka izan dituzte aurtun. Besteak beste, ‘Eibar Antxitxika’ egitasmoa jarri zuten martxan apirilean, herriko kirol-taldek eta gimnasioek ahalik eta kilometro gehien batzeko asmoz.

Auzoko Elkarteen Mahaia eratu zuten Txontako La Plazoleta, Errebal Bizirik eta Ez lurperatzen gaituen paseoari-Ekialdea Bai auzo-elkarteek, ekialdearen alde auzolanean aritzeko.

Ekialdean jarraituz, Sautsiko skate-parke berria inauguratu zuten.

Hilaren 29an, Dantzaren Nazioarteko Egunean, herri guztia dantzan jarri zuten herriko dantza-taldek.

Jaien sasoiari hasiera emanez, Santa Kurutz jaiak ospatu ziren hilabete amaieran.

Mankomunitateak **75** fruta-denda bisitatu zituen birziklapen-ohiturak ezagutzeko. Gutxienez **1.700** errenta aitoren euskaraz egitea lortzeko helburua ezarri zuten.





**NAIARA GUTIERREZ**

Zehar Errefuxiatuekin

**“Niretzat Irun eta Hendaia artean ez dago mugarik, baina pertsona beltz batentzat bai”**



Jonas Vingegaard nagusitu zen Eibarren erabaki zen Itzulian.



**SONIA GONZALEZ**

Idazlea

**“Lekeitiar adoptatua naiz eta hori asko islatzen da nigan eta nire obran”**



Andretxea berria inauguratu zuten Isasi kalean.

	<b>Zorionak eta Urte Berri On</b>	
	Tfnoa. 943 20 22 39	<b>EGOLAN</b> AHOLKULARITZA eta GESTIOA
Mobila. 617 16 33 82		
e golan.eibar@gmail.com	Julian Etxeberria 7, 7-C	



**IÑIGO PEREZ-ARREGI**

*BPTD*

**“Eskualde honek baditu behar adina zimendu jarduera interesgarriak aurrera eramateko”**

Maiatza aldarrikapenekin hasi genuen. Ez da gutxiagorako, hilaren 1.a Langileen Nazioarteko Eguna delako. Gero, lehenengo astean, osasungintza publikoaren aldeko manifestazioa egin zuten Eibarko Pentsionista Taldeak, Ernaik, Matrakak eta Naluak deituta.

San Andres eliza itxi egin behar izan zuten, teilatua erortzeko arriskua zegoelako, eta itxita egongo da zenbait urtetan.

PSE-k irabazi zituen Udal Hauteskundeak, Jon Iraolak alkate postuari eutsiz.

Udal hauteskundeak zirela eta, 58. Euskal Jaia hilaren erdialdean ospatu zen, maiatzaren 20ko asteburuan. Eta egun bat lehenago, euskararen olatua iritsi zen gurera, Tantanez Tantan egitasmoa egin baitzen.

# maiatza 5



**JULEN LETURIONDO**

*Musikaria*

**“Liburuan kantuei irudia emango diegu eta sortu dugun mundu hau zer den azalduko dugu”**

San Isidro jaiak ospatu ziren baserritarren patroiarri omentzeko. Baserritarrek, gainera, pozik agertu ziren gurean egindako elkarrizketan, datozen bost urteetan 1.750.000 euroko partida jasoko baitute. Inbertsio horren helburu nagusia landa-inguruneko pistak konpontzea da.

Jaiekin jarraituz Dia das Letras Galegas jaiak ospatu ziren Urkizun. Euria protagonista izan arren, jende asko bildu zen bertan, ohiko lez.

Festa, Eibar KE-ko emakumezkoen taldekoena Lehen mailara igo ondoren. Maila gorenean jokatzeko txartela lortu zuten gorriurdinek.

Txirrindularitzan, berriz, maila handiko lehiakideak etorri ziren Eibar Hiria Sari Nagusira eta Olivia Barilek bigarren egunez jarraian lortu zuen garaipena



Eibarzaleek harrera beroa egin zieten Lehen Mailara igotzea lortu zuten jokalariei.

2022an **5.325** kilo kafe kapsula jaso ziren Minigarbiguneetan.

Zabaldu zenetik, NANaren Bulegoak **55.762** dokumentu izapidetu ditu guztira.



**PEDRO LASKURAIN**

*Apaiza*

**“Esperientziak gauzak lasaitasunez aurrera eramaten laguntzen dit eta ilusioz ekin diot bide honi”**



Udal Hauteskundeetan PSE-EE izan zen garaile.



**AGURNE GAUBEKA**

*Behatokia*

**“Gure hizkuntza eskubideak baldintzatuta eta mugatuak daude”**



Aurten, hauteskundeak zirela eta, aste batzuk aurreratu behar izan zituzten Euskal Jaiko ekintzak.



• **tartak**  
• **enkarguak**  
• **etxera**

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73



merchandising  
serigrafia  
lanerako erropa

www.publiresa.com  
publiresa@publiresa.com  
943 701 497 / 615 799 419  
Armagin, 3-5 behea

## ekaina

## 6

**MANU ERTZILLA  
OSKAR ARANTZABAL***Krutwigen lagunak***“Federico Krutwig  
mendebaldeko kulturaren  
pertsone osoa zen”****XABIER MARTIN***Musikaria***“Stai Zittori agur esateko  
momentu aproposa dela  
pentsatu dugu, lagun bezala”**

Ekaina festa giroan pasa ohi dugu, hasiera hasieratik. Izan ere, hilabeteko lehen asteburuan Urkiko jaiak ospatu genituen eta, gero, noski, Sanjuanak izan ziren protagonista, ia hilabete osoan zehar egoten diren eta hilaren 23an eztanda egiten duten ekintzekin.

Sanjuanetan ohikoa bihurtu da boxeo jaialdia ospatzea eta aurten zilarrezko ezteiak ospatu zituzten. Bertan, Jose Perez ‘Amañako Tigrea’ omendu zuten, bi hilabete geroago utziko gintuena.

San Juan jaiak hasi aurretik, Jon Iraolak alkate makila hartu zuen eta udalbatza berria aukeratu zuten plenoan.

Bigarren urtez jarraian, Eibar KE-k promozioan esan zion agur Lehen mailara igotzeko ametsari. Osera, Urbat waterpolo taldeak bai lortu zuen arrakasta eta 2. maila nazionalen jokatzeko txartela eskuratu zuen. Eta Eibar Rugby Taldeak ere ospatu zuen, emakumezkoek errugbi 7 modalitateko Erreginaren Kopa irabazi baitzuten Madrilan.

Kirolak alderdi solidarioa duela erakutsiz, Minbi-ziaren kontrako martxak kolore berdez bete zituen kaleak, ehundaka lagun bildu zirelarik.

Altxoa elkartekoek indarkeria sexistari “puntu eta kitto” esan zioten ‘Kaleak gureak dira’ ekimenaren barruan, eta matazak ehuntzen egon ziren ekainaren 10ean.

Ibarkurutze Iturriaren inguruan, Poesia-Musika Gaua egin zen, 10. urtez, herriko eta inguruetako olerkariak eta musikariak jasoz.

Eta noski, udarekin batera, kanpoko igerilekuak zabaldu zituzten.



Belaunaldi ezberdinak batu zituen Eibar Kantuan antolatu zuten.

Aurtengoan, Debabarreneko Esperientzia Eskolan **26** ikaslek hartu dute parte. **500** lagun inguru bildu zen Eibarko Itzulia egiteko.



**ARESATZ USOBIAGA  
IÑAKI OSORO**

*Klub Deportiboa*

**“Artxibo digitala irekita  
egongo da, Klub Deportiboa  
herriarena dela pentsatzen  
dugulako”**



**NEREA LODOSA**

*Dantza irakaslea*

**“Irrati-kasete batekin egin  
genuen lehen dantza  
Sanjuanetan”**



Minbiziaren aurkako martxak kolore berdez jantzi zituen kaleak.



Poesia Gauen 10. edizioa egin zen Ibarkurutzeko iturriaren inguruan eta ekintza ezberdinak egin zituzten.

Jose Perez 'Amañako Tigrea'-k omenaldiak jaso zituen Sanjuanetan eta, zoritxarrez bi hilabete geroago, hil egin zen.

# XXVIII. Eibarko Kirol Sariak

Abenduaren 31n, domekan, ...eta kitto! astekariak antolatzen duen Eibarko Kirol Sarien 28. edizioak hitzordua izango du Eibarko kirol munduarekin. Coliseon, eguerdiko 12:00etan hasiko den ekitaldian, kirol-modalitate bakoitzean izendatutako kirolariek euren saria jasoko dute; aurten 32 banatuko dira guztira. Eibartarroi ekitaldira joateko gonbitea egiteaz gain, parte hartu duten kirol talde guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Zorionak irabazleei! Eta baita gure herriko kirol-taldeei ere, urte guztian egiten duten lanarengatik. Ekitaldira joaterik ez duzuenok ere streaming bidez jarraitu ahal izango duzue ([www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)). Eta, 2023an Eibar Kirolaren Europar Hiria izan denez, urteari agur esateko egin dezagun bat, beraz, Kirola eta Euskararekin.



**abenduak 31 / domeka / 12:00 / Coliseo**



**Fernando Errekalde**  
**SARI BEREZIA**



**Mirari Ubera**  
**EUSKARA SARIA**



**Aitor Campos**  
**ARETO-FUTBOLA**



**Nora Zabala**  
**ATLETISMOA**



**Ibon Artola**  
**AUTOMOBILISMOA**



**Ricardo Ereña**  
**BILLAR**



**Aleu Cid**  
**ERRUGBIA**



**Maialen Insausti**  
**ESKUBALOIA**



**Juliana Aparicio**  
**FUTBOLA**



**Ipurua Zuzendaritza**  
**GINNASIA ERRITM.**



**Juan Luis Tueros**  
**GOLF**



**Roberto Oregi**  
**HERRI KIROLAK**



Jose Manuel Perez  
HIRU TXIRLO



Igor Ruiz / Ekaitz Lago  
IGERIKETA



Markel Simon  
JUDO



Xabier Teruel  
JUGGER



Xuban Hoyos  
KARATEA



John Nunez  
KICK BOXING



Pello Berrizbeitia  
MENDIA



Haitzart Iraolagoitia  
PILOTA



Iker Hidalgo  
SASKIBALOA



Oscar Ferreiro  
SQUASH



Gabriel Saro  
TENISA



Iker Badiola  
TIRO OLINPIKOA



Aitor Fernandez  
TRIATLOIA



Nagore Angiozar  
TXAKURKROSA



Peio Goikoetxea  
TXIRRINDULARITZA



Fito Malaga  
WATERPOLOA



Luis Gonzalez  
WU-SHU



Guridi  
SUSTAPENA



Jose Perez  
ERREKONozIMENDUA



Arima Galduak  
ERREKONozIMENDUA



**XABI ALDAZ**

*Kaotiko*

**“Dena ematen duzunean oso giro polita sortzen da, eta Amañan horrela gertatzea espero dugu”**

Bio/Osasun eremuko bi enpresa-proiektuk jaso zituzten sari nagusiak Toribio Echevarria Sarien 33. edizioan.

Amañan jaiak eztanda egin zuen eta auzoan bakarrik ez herri osoan hain garrantzitsuak diren festak ospatu zituzten. San Kristobal auzoan, ostera, “ez-jaiak” egon ziren.

Uztailean motor hotsak ere izaten dira nagusi, eta aurten ez da gutxiagorako izan, Lambretta topaketa egin baitzuten hilaren bigarren asteburuan.

Juggerreko Munduko Txapelketa jokatu zen Unben. 68 taldek hartu zuten parte eta mundu guztitik etorritako 600 lagun aritu ziren bertan.



Jende ugari bildu zen Amañako Jaietako kontzertuetan.

# uztaila 7 8 abuztua



**JOKIN AZPIAZU**

*Musikaria*

**“Esperimentazioa inoiz ez da amaitzen, baina puntu batean, osasunarengatik, ‘honaino’ esaten duzu”**

Eibar KE-k denboraldi berriari ekin zion eta, horretarako, apostu berria egin zuen aulkirako, Joseba Etxebarria elgoibartarra fitxatuz.

Aurten, gainera, kirol modalitate berri batek lehen pausoak eman ditu herrian. Izan ere, Eibar Igerixanek igeriketa sinkronizatuaren sekzioa jarri du martxan Nora Melo donostiarraren gidaritzapean, eta berarekin egon ginen uztailean.

Uztailaren amaieran Diputatuen Kongresurako eta Senaturako Hauteskundeak egin ziren, eta PSE-EE nagusitu zen Eibarren.

Eta uztailaren azken egunean, Jon Etxabe hil zen, apaiza, ETako militantea, politikaria, irakaslea, idazlea, euskalzalea eta... eta kitto!-ren sorreran partaide izan zena.

Abuztuan, bestalde, eraisketak izan ziren protagonista. Jende asko herritik kanpora joaten dela aprobetxatuta, herri barruan egin beharreko obra eta konponketa-lan ugari burutu dituzte aurten. Eta bolumenari begira, Arragueta kaleko etxe zaharren eraisketa nabarmendu daiteke.

Kirolari eibartarrek maila handiko txapelketak jokatu zituzten abuztuan. Batetik, Jokin Ajak Kroazian jokatutako jubencil mailako munduko txapelketa irabazi zuen Espainiako selekzioarekin. Bigarrenik, Imanol Egidazu Europako atletismo txapelketan izan zen. Eta hirugarrenik, JAZ-eko triatlolariak geratu barik ibili ziren abuztuan.

**77** herrialdetatik etorritako **2.916** lagun daude Eibarren, biztanleen **%10,69**. **600** ume inguruk hartu zuten parte udalekuetan.





**ANE ALBISU**

Eibarren AKEBAI

“Euskal hiztunok gure hizkuntza eskubideak defendatu behar ditugu”



Juggerreko Munduko Txapelketa jokatu zen Unben.



**SILVIA ZULOAGA**

Nutrizionista

“Ondo jaten ikasten dutenean hasten dira nire pazienteak magia egiten”



Gizartea Parkinson gaixotasunari buruz kontzientziatzeko asmoz, Londrestik Lisboara bizikletan bidaia egin zuten bi lagunek eta Eibarren egin zuten geldialdia.

Ibarkurutzte, 5  
943 20 37 15

koltxolak  
sukaldeak

**Karlos** ALTZARIAK

**BOLINTXO**  
**OKINDEGIA**  
**GoZOTEGIA**

Eguneroko ogia

☎ 943 20 40 66 (Errebal)



## AMAIA UGARTE

Kazetaria

**"Askok ez dute profesionalak ikusten, futbolean jokatzan duten neskak baizik"**

Eibartarrantzat iraila 8an hasten da, Arrate Egunean. Aurten, eguraldia lagun eta asteburuarekin bat egiten zuela kontuan hartuta, milaka lagun elkartu ziren Arrateko zelaian.

Azken urteotako etena eta gero, Eibar Rugby Taldeak Garagardo Azoka antolatu zuen, baina ez ekainean ohikoa izan den bezala, irailean baizik.

Irailaren hasieran Richter eskalako 6,9 graduko lurrikara izan zen Marokon, Marrakech inguruan, eta han zegoen Leire Barriusok bertan bizitakoa kontatu zigan.

El Corte Ingles enpresak gure herrian zuen aktibitatea erabat etetea erabaki zuen.

# iraila 9



## NEREA EIZAGIRRE MAITANE LEKUNBERRI

Irakasleak

**"Perun egiten den lanaren atzetik dagoen guztia ikustea oso polita izan da"**

Beistegui Hermanos eraikinari eta Ramon Martiarena arkitektoari aitortpena egin zioten.

Legarreko lokaletako musika taldeek ikuskizun berezia eskaini zuten hilaren amaieran, eta zuzenean aritu ziren bertan entseatzen duten zenbait talde: Zapatu Beltza, Markos Untzeta, David Karba, Goeka Beato eta Eibar Opina DJ.

Hilaren azken egunean, bero izugarriarekin jokatu zen Half Bilbao Triatloian, Pello Osorok 10 minutu atez zizkion bigarrenari. Eta bi egun lehenago, bestelako klima batean, Fernando Errekalde zortzimilako bat igotzen duen lehen eibartarra bihurtu zen Manaslu igota.



Arrateko Jaiak giro bikainean bizi izan genituen.

Udalak **7,5** milioi euro inguruko aurrekontua ezarriko zuen Gabilondo birgaitzeko. Munduari Kolorea Ematen elkarteak janari-bilketa egin zuen **2.500** kilo batzeko.



**JOSE MANUEL DIAZ AJA**

*Tiratzailea*

**“Jendeak uste du tiroan punteria dela garrantzitsuena, baina oso psikologikoa da”**



**JULEN BOLLAIN**

*Ekonomialaria*

**“Nahi politikoa balego, oinarritzko errenta egingarria izango litzateke”**



Marrakecheko lurrikara zuzenean bizi ondoren, bertan gertatutakoa kontatu zigun Leire Barriusok.



Legarreko lokaletako musikariek ikuskizun berezia eskaini zuten euren auzoan.

Manasluko tontorrera igotzea lortu zuen Fernando Errekalde mendizaleak.

# urria 1 0



## ZALOA ETA HELENE OTADUY

*Egoaziarekin Perun*

**“Eskerrak eman behar dizkiogu Egoaziari esperientzia hau bizitzeko aukera eman izanagatik”**



## AMAIA FERNANDEZ

*Nutrizionista*

**“Ezer ez debekatzea eta elikadurarekin harreman ona edukitzea da helburua”**

Urriaren lehenengo zapatuan eibartar askok itxaroten zuten eguna iritsi zen: Sagardo Eguna. Eguraldia lagun izan genuen eta milaka lagun elkartu ziren Untzagan sagardoaz gozatzeko ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik.

Azken urteotan, gainera, urria kintaden hilabetea bihurtu da. Horrela, adin bereko lagun kuadrilla asko bildu dira berriz ere elkartu eta festa egiteko.

Untzaga Jubilatuen Etxean segurtasuna eta ongizatea sustatzeko plana abiatu zuten eta, Alberto Viteri sendagilea zuzendaritzan sartu den honetan, tailer batzuk prestatu zituen gaiari heltzeko.

Eibar KE-k kide berri bat aurkeztu zuen, baina

oraingo honetan ez zen jokalaria edo entrenatzaile bat izan, maskota baikik: Pantxika.

Jardunaldi Mikologikoen 23. edizioa ospatu zen hilaren azken asteburuan. Horrela, perretxiko erakusketa eta dastaketa egiteaz gain, hitzaldia eskaini zen gaiaren inguruan.

Ekimen berriek ere tokia dute herrian eta herritarren bultzadaz berpiztu den Ipuruako Merkatu Plazak ekintza ugari prestatu ditu aurten. Horrela, urrian datozen hilabeteetarako egitaraua aurkeztu zuten, arlo ezberdinetako jarduerak eskainiz.

Berri txarrak ere izan genituen urrian, Urtzi Abantzbalegi Eibar Rugby Taldeko ikurrak laga zizulako.



Kintada ugari egin ziren urrian zehar.

**13** tabernak hartu zuten parte Arrate Kultur Elkartearen Pintxo Lehiaketan. Elizaren sexu abusuen ikerketan San Andres elizan gertatutako kasu **1** antzeman zuten.



**MIREIA ALONSO**

Zaporeakekin Lesbosen

“Lesboseko errefuxiatuak ezin ditugu ahaztu; egoera berean egon gaitezke-eta”



**FERNANDO ERREKALDE**

Alpinista

“Gidetan eta bideoetan ez dira antzematen altuerak eragindako zailtasun guztiak”



Ehundaka lagun irten ziren kalera Palestinako herriari babesa azaltzeko.



Urriaren 2a Arkitekturaren Nazioarteko Eguna dela eta, horren aitzakiarekin, Arragueta kaleko 20. zenbakian dagoen Beistegui Hermanos (BH) eraikina aintzatesteko ekitaldia egin zen.

Marisol Arrillaga trikitilaria omendu genuen Sagardo Egunean.



## JOSUNE ARANGUREN

Artista

**“Erakusketako kasu guztiak bizipenak dira, inork ezin dit esan hori indarkeria ez denik”**

# azaroa



## XABIER BADIOLA

Musikaria

**“Folkean musika eta letrak oso intimoak dira”**

Egoaizia GKEak Eibar Eraldatuz izeneko ekimena abiatu zuen, “Eibarren bizi direnen eta bisitarien kontsumo jasangarriaren inguruko kontzientzia sustatzeko asmoz”.



Gastronomia izaten da nagusi azaroan zehar.

Uztailaren 31n hil zen Jon Etxaberi azken agurra eman zioten Armeria Eskolan egindako ekitaldi jendetsu eta hunkigarrian.

Azaroa hilabete gastronomikoa izan ohi da Eibarren eta aurten ez da gutxiagorako izan. Tripontziak ekimena, Gaztainerre, Magostoak, Bakailaoaren inguruko lehiaketa ezberdinak, Txistorra Eguna... Ondo jateko aukerarik ez da falta izaten herrian.

Pedro Palacinek zuzentzen duen Andres de Egiguren orkestrak proposamen berezia ekarri zuen Coliseo antzokira: Erakusketa bateko koadroak musikaren erritmora ikusteko gonbidapena. Artearen eta musikaren uztartzearekin jarraituz, Maite Arriagak beste proposamen bat eskaini zuen Maite Arroita Jauregi ‘Mursego’-rekin batera Ipuruako Merkatu Plazan: Bi modelo marraztea musikari eibartarrak bere doinuekin saioa girotzen zuen bitartean.

Ikus-entzunezkoetan, ostera, Asier Errasti Film Laburren jaialdia egin zen eta Hugo Sanzen ‘Solo un ensayo’ lana izan zen irabazlea.

Hilabete amaiera nahiko mugitua izan zen herrian. Lehenik, Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, azaroaren 25ean, hainbat ekintza egin ziren. Eta gero, San Andres egunak eta Greba Feminista Orokorrak bat egin zuten azaroaren 30ean.

Ander Egurrola izan zen lehen eibartarra Hiru Handietan, **15** ordu behar izan zituen. Behobia-Donostian, bestalde, **100** eibartar heldu ziren Bulebarrera.



**MAITE ARRIAGA**

Artista

“Nire klaseetan beti jartzen dut musika. Egia da, ostera, isilpean lan egitea ere oso interesgarria eta ona dela”



Hilaren 30a egun berezia izan zen Eibarren. Batetik San Andres azoka izan genuen...



**LANDER GARRO**

Idazlea

“Literatura geroz eta gutxiago interesatzen zait, bai irakurle gisa, bai idazle gisa”



...eta bestetik, Greba Feminista Orokorra.

**Izadi**  
LORADENDA  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK

*Enkarguak etxera*

**GAUR**  
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA ETXE-ERREFORMA  
ELEKTRIKO INTEGRALAK  
ILUMINAZIOA  
ATEZAIN AUTOMATIKOAK ETA BIDEO-ATEZAINAK

Zuloagatarren, 9 Tel. 943 20 62 40  
nagore@egaur.com

# abendua 1 2



**DAVID KARBA**

Musikaria

**“Oso txarto pasatu dut diskoa egiten, baina irten denean harro sentitu naiz, indartuta”**



**JOKIN BERGARA**

Soziologoa

**“Krisi ekologikoak krisi sozialak eragiten ditu gizarte kapitalista honetan”**

San Andres egunean Greba Feminista Orokorra egin zenez, herriko zenbait kolektibok hilaren 2rako laga zituzten ospakizunak eta baserritar jantzita egin zuten festa ez ohiko datan. Besteak beste, 30 urte bete zituen Plazara Dantzara erromeria egin zen.

Azitainen ere ospakizunak izan dira, hilaren 21ean ekitaldi berezia prestatu baitzuten auzokideak omen-zeke eta auzoa berpizteko.

Herriaren erdialdera begira, gure ikurra den Unzaga plazaren bilakaeraren inguruko liburua aur-



Plazara Dantzara erromeriak 30 urte bete zituen.

keztu du hilabete honetan Javier Martin Lapeyra ilustratzaile eta ikertzaileak.

Datorren urtean Korrikaren 23. edizioa egingo da eta, beti hain ezaguna egiten den Korrikaren abestia Eibarren sortu da aurten. Izan ere, Maite Arroijtajauregi ‘Mursego’ izan da abestiaren autorea eta Juan Bautista Gisasola Musika Eskolan aurkeztu zuten berau.

Politika kontuetan ere erdigunean egon da Eibar, Astelena frontoian aurkeztu baitzuten Euskal Herriko Kontseilu Sozialista mila lagun baino gehiagoren aurrean.

Poliki-poliki Gabonetako giroa joan da nagusitzen herrian eta, argiak piztu ondoren, herriko eragileek eta Udalak antolatutako ekintza ugari etorri dira urteari modurik onenean amaiera emateko.

Aurtengo Gabonetako oparia Eibarko Koro Gaztearen eskutik etorri da. Urtebeteko lanaren ondoren, ‘Neguko ahotsak’ izeneko diskoa kaleratu dute artista gazteek eta, horrez gain, bideoklipa grabatu eta kontzertu berezia eskaini dute Coliseo antzokian.

Eibarzaleek ere oparia jaso zuten, Athletic Club-en aurka jokatzeko egokitu baitzaio hurrengo Kopa kanporaketan. Baina hori datorren urteko kontua izango da, urtarrilaren 7an jokatu baitute Ipuruan.

Aurtengo Gabonetako kanpainak **110.000** euro baino gehiagoko aurrekontua du. **12.500** esaldi grabatzeko erronka jarri zuten adimen artifizialak euskara ikasi dezan.





**JON MAIA**

*Bertsolaria*

**“Jendeari ikusarazi nahi nion, oso txikiak izan arren, oso handia den historia baten parte garela”**



**EKAIN ZARRAUA**

*Bideojoko garatzailea*

**“The Silent Swan bideojoko lasaia da, baina oso polita”**



Eibarko Koro Gazteak 'Neguko ahotsak' diskoa aurkeztu zuen.



Untzagako plazaren bilakaeraren inguruko liburua aurkeztu zuen Javier Martin Lapeyrak.

Mari Domingi eta Olentzerori harrera beroa eskaini diete herrian.



# Euskara, eskurik esku eta ahoz aho teknologia berrietaraino



Euskarak jasan eta jasaten dituen erasoen aurkako mugimenduak sortu dira aurten eta bikaina izan da jendearen erantzuna. Gainera, bigarren urtez jarraian, Tantan ezkararen olatua iritsi zen gurera, herria zeharkatuz. Olatu berriak ere iritsi dira teknologia berrien eskutik eta euskarak hor ere tokia duela erakutsi du.

**B**enetan jendetsua izan zen maiatzaren 19ko arratsaldean Eibarko Euskalgintzaren eskutik ospatu zen Tantan ezkararen aldeko jaia. “Tantan ezkararen, eibartarrok euskaraz blai” goiburuari jarraituta, Urkizutik Untzagara bitarteko ibilbidea bete zuen euskararen olatuak, Eibar hobe eta euskaldunagoa egiteko asmoz.

## ASTINDU EIBAR

Eibarren AKEBAI-ko ekipoak Astindu Eibar hizkuntza eskubideen atal berria aurkeztu zuen ekainean, herritarrei hizkuntza-eskubideen berri emateko, eta horiek bermatu eta errespetarazteko asmoz. Horrela, eibartarrek eta Eibarko zerbitzuetako erabiltzaileek hizkuntza-eskubideen inguruan izan ditzaketan zalantzak, kezak, galderak... jasotzeko eta argitzeko kanala zabaldu zuten.

## EUSKARAREN OLDARRALDIA

Euskararen aurrerabideen kontra egon diren epaien aurka antolatutako manifestazioa euskalgintzak azaroaren 4rako. Bilbon egin zen eta mila-lagunek hartu zuten parte bertan. ...eta kitto! Euskara Elkartek bat egin zuen deiarekin.

## APPA HI!

Eibarren Akebai plataformak eta Badihardugu Euskara Elkartek, CodeSyntaxen laguntzarekin, Eibarrera egokitutako Appa Hi! mugikorretarako aplikazioa aurkeztu zuten hikaren erabilera sustatzeko.



Bigarren urtez jarraian iritsi da herrira euskararen olatua.

### GAITU

Adimen artifizialak euskaraz egin dezan, euskarazko ahotsen banku digitala sortzen laguntzeko ahots-grabaketa maratonia antolatu zuen Eibarren AKEBAIk abenduaren lehen bi egunetarako. GAITU kanpaina urriari abiatu bazen ere, ekimenari bultzada berezia eman nahi izan zaio Euskararen Egunaren bueltan hainbat herritan, eta halaxe izan da Eibarren ere. Dozenaka herritar, elkarte eta eragile hurbildu ziren barixaku arratsaldean Errebal Plazara eta zapatu goizean Untzagako zentro sozialera, bertan eskuragarri ipini ziren ordenagailuak edo norberaren telefono mugikorra erabilita grabazioak egitera.



### EUSKARAREN EGUNA

Orain dela urte batzuk erabilitako goiburu ezaguna berreskuratu dugu aurten Euskararen Eguna ospatzeko: Eibarren 365 egun euskaraz. "

Euskarak

365 egun dituela aldarrikatu nahi izan dugu, urteko 365 egunetan izan behar dela euskararen eguna, ez dela egun bateko kontua, euskaraz nonahi eta noiznahi jardun nahi dugula, orain eta hemen nahi dugula euskaraz bizi", antolatzaileen esanetan.



### KORRIKA ABESTIA

2023a datorren urtera begira amaitu dugu. Izan ere, Korrika egingo da udaberrian eta abestia Maite Arroita jauregi 'Mursego'-k sortu du. 'Harro Herri' da kantuaren izenburua eta Juan Bautista Gisasola Musika Esko-

# “Euskararen sarea inoiz baino gehiago ehundu dugu aurten”



**E**lkarrekin bizia da ...eta kitto! Euskara Elkarteak; batetik, bazkide eta herritarrentzat ezagunak dira elkarteko langile eta zuzendaritza kideak, eta, bestetik, gure jarduna oso herritarra eta kalekoa da, hau da, aurreko aurrekoa, soziala eta elkarlanean oinarritutakoa.

Bidelagunez jositako ibilbide desberdinak jorratzen dihardugu, beti ere norabide bereko bidean, Eibarraren euskaraz bizi ahal izatea, hau da, gure herrian euskararen erabileran eta normaltasunean aurrerapausoak ematea.

Zu, irakurle, bazkide, herritar zara ...eta kitto! Euskara Elkartearen arima eta bihotza, baina egunerokotasunak ondo erakusten digun bezala,

elkarrekin gehiago gara: hezurdura sendoa, burmuin argia, muskulu indartsua, hamaika koloretako azala eta euskaraz guztia bustitzen duen odol gorria.

2023an Gurasoak Berbetanek hartu duen dimentsioa sekulakoa izan da. Gero eta familia gehiagok hartzen dute parte familia giroan euskararen erabilera sustatzeko programan eta, beraz, gero eta zabalagoa da ehundu dugun harreman sarea.

Ongietorri, elkarbizitza eta kultur aniztasuna sustatzeko programa sendotu eta zabaldu egin zaigu aurten. Parte-hartzaile kopurua handitzeaz gain, perfila ere aldatu egin da, eta gero eta jarduera gehiago antolatu dira Berbetan eta Gura-

soak Berbetan programetako partaideekin batera edota herriko beste eragile batzuekin, kasu honetan ere, pertsonen arteko sarea, ehuna sendoa eta iraunkorra eginez.

Bai Ongietorri bai Gurasoak Berbetanen umeen parte-hartzea oso garrantzitsua da eta, hori kon-tuan hartuta, txango, tailer edota irteeretan euskara, formazioa eta gozamena lotzen ditugu.

Herrigintza edo Euskaingintzan ere, burubelarri aritu gara herriko beste eragileekin batera jarduera desberdinak antolatzen, koordinatzen edota gauzatzen: Tantanegiz, Euskararen Eguna, herriko jaien egitarauan parte hartzen dugu (Aratosteetako Play-Backa, San Juan Sua, Euskal Jaialdia, Arra-





Euskararen Eguneko lantaldea. S. HERNANDEZ

teko Bertso afaria, Kittonbolia, Sagar-  
gardo Eguna, San Andres Bertso  
jaialdia...)

Euskararen sentsibilizaziorako  
saioak ere eskaini ditugu, Udaleko  
Euskara Sailaren ekimenez, DBH  
zein Lanbide heziketako ikaste-  
txeetan; euskararen sozializazio eta  
transmisioari buruzko mintegiaren  
12. edizioa egin genuen martxoaren  
15ean, euskal literatura landu dugu  
“Harixa Emoten” tertulietan...

Kaleko giroa euskalduntzeko as-  
moz, merkataritza eta ostalaritzako

establezimenduetan ezezik bezero  
eta herritarrengan ere eragiten ja-  
rraitu dugu Euskeraz Primeran!  
programaren bitartez: tabernetan  
euskal musika ipintzeko zerrendak  
osatuz, neguko zein udako merkataritza  
azoketan postua ipinuz, hala  
eskatzen diguten establezimenduei  
hamaika itzulpen eta zuzenketa egi-  
nez, erosketen ibilbidean parte har-  
tuz...

Beraz, asko izan dira euskararen  
presentzia eta erabilera bermatzeko  
asmoz eragile desber-



**Ongietorrik harrera  
ezinhobea izan du  
eta aurreikuspenak  
onak dira**

**Hainbat kanpaina  
egin dira  
merkataritzan eta  
ostalaritzan euskara  
sustatzeko**

dinekin landu ditugun arloak,  
elkarlanean: AKEBAIn, Emaku-  
mearen mahaian, Merkataritza-  
ren mahaian, Euskalgintzaren  
mahaian, ikastetxeekin...

Izan ere, gure elkartearen balioe-  
tan ondo errotuta dago partaide-  
tzarik gabe ezin dela aurrera egin,  
zuek ere gure proiektuetako parte  
zaretelako. Izan berbalagun, etorri-  
berri, tabernari, irakurle, dendari,  
guraso berbalagun zein ume, ber-  
tso-saioteko entzule zein bertso-  
paper lehiaketako lehiakide, Sagar-  
do Eguneko bezero zein zerbitzari,  
Ipurterre ipuin-lehiaketako par-  
taide zein epaimahaiko kide, Txiki-  
tito!ko irakurle zein ikastetxeetako  
irakasle, itzulpen zerbitzua behar  
duen dendari edo gilda-lehiaketan  
parte hartzen duen tabernari zein  
bezero... ZUEK motorra ZARETE-  
LAKO GARA gu IBILTARI.


2024an pauso garrantzitsuak  
emango ditu elkarteak tokikota-  
sunean, kalitatean eta elkarlanean  
oinarrituta euskararen erabilera  
sustatzeko, eta oraingo honetan  
ere zuek izango zarete erdigunean.  
Urte berri on!



Mari Jaia? Ezetz, inuxente, Mari DomIngi da-eta! SILBIAHERNANDEZ

**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

		5			3	
7		9	3			4
			6		5	1
	8	9	6	4		
	4	1	7	2		
4	8		2			
3				8	1	2
	2			3		



soluzioa

**SUDOKU**


**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

		6		8	3	4
3	8			9		5
	7		6			
2			4			9
		9	3	6		
7				2		3
			5		1	
4			9			7
	5	1	6		8	

soluzioa



irteera



L  
A  
B  
I  
R  
I  
N  
T  
O  
A

sarrera

**AURKITU 6 EZBERDINTASUNAK**



## ZINEA COLISEO

### 1 ARETOA

• **30ean:** 17:00, 19:45, 22:30

#### “Camino a Belén”

ABENTURAZKOA



2023/AEB/98'  
Zuzendaria: Adam Anders  
Aktoreak: Fiona Palomo, Milo Manheim, Antonio Banderas  
**Musikala/Biblia/Gabonetakoa**

### 2 ARETOA

• **30ean:** 17:00, 19:45, 22:30

#### “Teddy, magia de Navidad”

ABENTURAZKOA



2022/Norvegia/78'  
Zuzendaria: Andrea Eckerbom  
Aktoreak: Marte Klerck-Nilssen, Vegar Strand, Gunn Tove  
**Gabonak/Panpinak/Familian**

### ANTZOKIA

• **30ean:** 17:00, 19:45, 22:30

#### “Que nadie duerma”

DRAMA



2023/Espainia/122'  
Zuzendaria: Antonio Mendez  
Aktoreak: Malena Alterio, Aitana Sanchez-Gijon, Jose Luis Torrijo  
**Intriga/Taxi-gidaria**

Urkizu, 18  
943120194  
**MUGIKA**  
Harategia - Urdaltzgia  
Carnicería - Charcutería  
Baserriko Haragia

**FUNEUSKADI**  
Grupo Adima

**FUNERARIA MUGICA**  
Funerariak

TANATORIO EIBAR

TANATORIO FUNERARIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Eibar: Otaola, 27  
Elgoibar: Xelion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)  
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20  
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar - Elgoibar - Ermua - Bilbo - Barakaldo - Leioa - Getxo - Sestao - Portugalete - Santurtzi - Basauri - Galdakao



943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **NAIKE!!!**  
Atzo 3 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat Koikilli eta Artzairen partez. Maite zaittugu.



**ESTEBAN** Onaindia Sarasuak hillaren 26xan 100 bete zittuan. Zorionak, aittitte, zure famelixaren partez!!! Musu haundi bat.



Zorionak, **IKER**, bixar 9 urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren eta, bereziki, Eleneren partez. Ondo ondo pasa zure eguna!



Zorionak, **JARE**, zure 8. urtebetetzian. Patxo potolua famelixa guztiaren partez. Maite zaittugu!



Zorionak, **PAULA!** Urtarrillaren 4an 7 urte beteko dozuz-eta! Egun zoragarria pasau, maitte zaittugun guztion partez.



Zorionak, **JAKES**, harañegun urtetxua bete zenduan-eta. Zein ondo pasau genduan zure egunian, txapeldun! Han izan giñan guztion partetik.



Zorionak, **IZASKUN**, urtarrillaren 6xan urtiak beteko dozuz-eta. Ondo-ondo ospatu! Laztan haundi bat laguneren partez.



Zorionak urte amaierako gure mutillari. Gure **KEPA** lurrikarak hillaren 29xan 2 urte beteko dittu, eta gure **LUKA** aingerutxuak hillaren 31n 5 egingo dittu. Asko maite zaittuen aitta eta amaren partez.



Zorionak, tio **IÑIGO** (datorren barixakuan 53 urte) eta **IKER** (urtarrillaren 11n 23)! Ondo ondo ospatu. Laztan haundi bana famelixaren partez.

## Guillermo Sorriqueta Barcena

**6. URTEURRENA**  
2018/01/08

“... eta nik txoria nuen maite...”

- MAITE, RICARDO  
ETA SENIDEAK -

## Isabel “Isa” Esnaola Escudero

2023/12/25

ESKERRIK ASKO  
une latz hauetan gurekin  
egon zareten lagun  
eta familiako guztioi  
eta doluminak bidali  
dizkiguzuenoi.

- ETXEKOAK -

# Iragarki laburrak



943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Emakume batek etxebizitza hartuko luke alokairuan. 603258452.

### 1.3. Konpartitzeko

- Laguna behar dut pisua konpartitzeko Elgoibarko baserri batean. 669512815.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 631612652.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Arratsaldetan eta asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. 646821678.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Externa. 605402030.
- Emakumea eskaintzen da testuak digitalizatu eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 670389880.
- Emakume euskalduna eskaintzen da arratsaldez nagusiak edo umeak zaintzeko. 634651895.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 612270162.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 624416776.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 641756213.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita egoitzetan ere. 641417815 / 632768653.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientzia eta informeak. 632415374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko jaiegun eta asteburuetan. Externa. 631425686.
- Administratibo/auxiliar edo aho eta hortzetako higienista behar da. Bidali curriculum-a: hortzklínika.06@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Goi mailako jazz kontrabaxuko ikasleak musika teoria, baxu elektriko eta kontrabaxuko klaseak ematen ditu. 673366678. Alex.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Atzo Estaziño kalean (Burbujas y más dendaren inguruan) urrezko eta perladun belarritakoa aurkitu zuten. Udaltzaingoa jaso daiteke.

ABENDUAK31  
DOMEKA

COLISEO  
ANTZOKIA

ORDUA  
12:00

# 28. Eibarko Kirol Sariak



*Kirola eta Euskara batzen  
diren egun honetan*

ESKERRIK ASKO EIBARKO KLUB GUZTIEI  
ZUEN URTE GUZTIKO LANARENGATIK



ESNATU ZURE ZENTZUMENAK  
*Sukaldaritza esperientzia ahaztezina*

